

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angèle Mendiburu Elizalde

*Makea
Lapurdi (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Makean sortu zen 1931ko uztailaren 10ean, Makea eta Luhuso artean den "Sendalepoa" (Zenderalephoa) laborantza etxean. Sei haurrideren artean laugarrena izan zen. Gero, hogeit bat urterekin Baionara joan zen legegizon baten etxera lan egiteko neskato bezala. Etxe horretan bi urte iragan ondoren ezkondu zen maite zuen Luhusoko mutil batekin, eta Baionako Cordeliers karrikara joan ziren bizitzera. Han hazi zituen bere semea eta alaba. Gurekin egon zenean, 'Baiona ttipia' utzi bazuen ere, hortik hurbil bizi zen, eta igande guztiz San Andres elizan egiten den euskarazko mezara joaten da, han aurkitzen baitira Baionako eta inguruko herrietako zenbait euskaldun.

Zintak

MAK-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erremundeguy, Joseba
- **Data:** 2012-12-05
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Dibon, Peio

Pasarteak

1. Euskaldun sortu, kristau eta frantses bilakatu

- **Erref:** MAK-002/002
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Makean sortu zen Angèle Elizalde 1931an. Sortegunaren hiru egunen buruan bataiarazi izan zuten herri honetako elizan. Euskalduna baldin bazen ere, frantsestua izan zen Herriko Etxean.</p>

Transkripzioa

- Nola duzu izena?
- Nere izena, sortzeko izena, Elissalde Angèle. Eta gero ezkontzako izena , Mendiburu.
- Eta, bon, izengoitia ez duzu?
- Ez, ez , ez.
- Eta noiz sortu zinen?
- Ni sortu niz mila bederatziehun ta hooita hamekan, eta Makean sortu, eta behiolakoak erraiten ziin bezala, eskualdun sortu eta gero kristau in gintuzten, elizan izan ginen hiru egunen burüan, Makeako elizan bataiatüa niz, eta gero frantsestu gintuzten herriko etxian.
- Eskolan?
- ...Lehenik herriko etxian eta gero eskolan, bistan da.

2. Ama makearra, aita iholdiarra

- **Erref:** MAK-002/003
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bizi den "Sendalepoa" (Zenderalephoa) etxean sortu zen Angèlen ama; aita aldiz, iholdiarra zen. Sei haurride ziren, zaharrena 1926an sortua, gazteena 1935ean.</p>

Transkripzioa

- Ta orduan, zure aitetamak nongoak ziren?
- E ben, ene ama horkoa zen, hor sortüa, Sendalepoa etxe hortan, eta aita lholditik jina zen...
- Ta zenbat haurride zinezten?
- Gu izan gira sei haurride: zaharrenak hooita... mila bederatziehun ta hooita seian sortu zen, ni laugarrena hooita hamekan, heldu bita bost urtez baginen lau haurride eta gero beste biga jin ziren, bat hooita hameka... hamabostian, ta bestea hooita hamazazpian, Mailuxa eta Martzel, bi azkenak.

3. Bi seme-alaben ama

- **Erref:** MAK-002/004
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>1953an ezkondu zen, 22 urte zituelarik. Bi seme-alaba izan zituen. Alaba Gasteizen (Araban) bizi da, semea, berriz, Donibane-Lohizunen.</p>

Transkripzioa

- Orduan esposatu zinen...
- Euh, ni ezkondu nintzan mila bederatziehun ta berrooita hamahiruan, hooita bi urteekilan, ikusten duzu gazterik esposatzen zen ordüan...
- ...ta bi seme-alaba izan dituzu?
- Bi seme-alaba baditut, baditut Maiterexa, alaba, Gasteizen bizi dena eta semea, berriz, Beñat, hura Donibane Lohizunen da.

4. Haurrak Baionan altxatuak

- **Erref:** MAK-002/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>20 urteetan, Baionako abokatu baten etxera joan zen lan egitera. Bi urte berantago ezkondu zen, eta Cordeliers karrikan kokatu. Anitz eskuin eta ezker joaten baziren, Baionan egon zen bere familiarekin.</p>

Transkripzioa

- Ta, orduan, zu zonbat urterekin etorri zinen Baionarat?
- Baionarat? Ba, zer nahi duzu, guk laborantxa giniin ta laborantxan ari izan /aizan/ gira eta gero etxia batentzat duzu, betiko istorioa, behar izan giniin gure biziaan idabazteko jin Baionarat; hor'e plantatu nintzan "avoué" baten etxian, "avoué" deitzen zen lehenao, abokata bano grado bat goro zuten, "avoué", orai ez dut uste baden gehio hoitarik; haren etxean egon bi urtez eta gero ezkondu, eta Baionan bizi izan niz, Cordeliers karrikan anitz urtez.
- Diila bost urte etorri gira hunat, suprefekturaan ondo huntarat, ikusten duzu ontsa zaindüak girela. Eta hara, Baionan bizi, eta Baionan izan ditut ene bi haurrak eta altxatu. Gure denboran emaztekiak ez ziren lanean aritzen /artzen/ kanpoan, heldu bita ama familiako gisa egona niz ene haurren altxatzen eta beti karrikan, hor bizi izan gira, zeen eta haurrak hola eskolatu dira, denak hurbil zituzten, bat kirola iteko eta bai eskolako, "voilà" zernahitako, pentsatu dugu hobeki zela hola. Gure denboran beste asko joan dira, etxeak in dituzte /intuzte/ eskun eta ezker eta gu beti hor egon gira.

5. Etxetik partitzeko gogoa

- **Erref:** MAK-002/006
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Angèlek goizik etxetik joateko ideia bazuen. Ez zuen inoren gain kontatu, bere buruaren nagusi izanik ibilitzen bazekielako. 20 urteetan, bi urtez Baionako abokatu baten egoitzan lan egin zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta zenbat urtekin hasi zinen “avoué” horren etxean?
- E ben, hogoi urte, hogoi urte, bi urte...
- Ta gogotik gan zinen etxetik harat?
- Etxetik, nik goizik banuen etxetik partitzeko idera, banakiin arras ontsa zer behar nuen egin. Maitemindüa nintzan eta behar zen gure ezkontzari buruz pentsatu, eta egundano ez dut nik aitamen, ez eta nehoon gainian kondatu, ene burüaan gainian kondatu dut, heldu bitzen behar baiginiin idabaztera joan, hori zen horgo, usaiaiko ohidura.

6. Libertatea lortu etxetik joanez

- **Erref:** MAK-002/007
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Denboran, gazteak ez ziren herriko bestetan gauaz ibiltzen. Bere senarra ezagutu zuenetik, elkarrekin ezkontzeko eta bizitzeko gogoaz zalu heldu zitzaion. Etxetik joan zelarik, ama negarretan utzi izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta senarra nongoa zenuen?
- A ben ez ginen urrunekoak, ez. Luhuson berekoa zen, Luhuso Bidartekoa.
- Ta gazterik ezagutu zinuen?
- Ba, ba, gazterik ezkondu, elgar ezagutu giniin... hura zerbitzutik jin eta, ondoko urtian edo urte hartan berian, eni buruz jin zen eta bon, hola! Enteresatzen zira hari, lehenagoko istorioak nola ziren?
- Bai bai, ta permisa, permisua galdatu behar izan zenuen aitari?
- Ezkontzeko, ez. Ez, ez, ez, bainan, zen... permisioniarik, ez zen jalitzen, ez ginen gauaz jalitzen, sekulan, Luhusoko pestetan eta hola. Ez gira izan, ez Makeako pestetan ere, gu gauaz ez zen denbora hetan gazterik. Bon, kategoria bat bazen. Bainan gu hola ginen, zaindüak ginen eta hola zen. [...] Gero hunat jin nizalarik'e ez nintzan jalitzen, ez arratsetan ez eta zinemarat, eta sekula ez. Banan gure helburüa zen, ezkontzia, elgarrekin plantatzia eta hala izan zen.
- Ta orduan bainan, ez zen ezkontzeko eta, ez zen permisionerik galdatzen?
- Ez, ez, ez, ez. Ba, ba, ba. Ene ama zena galdu nuen justu-justuia sei hilabete lehen. Harrek bazakien ze ideretan ginen. Erran duzu zuk, gogotik partitu nintzanez edo pena nuen etxetik partitzia, ni kontent nintzan, badakizu; pentsatzen duzun bezala, nik ene libertate poxia ta ordüan ene gizongaia ikusiko nuen hobeki eta istorio. Bainan ene amak egin zuen indar, nigar, zeen eta nik erran nion “bon, jinen zira ene segi, e?” eta etorri zen, beraz, Baionarat, eta hura ikusi nuen nigarrez, partitzian. Banan guk ez. Nik, erran dezaadan, gogotik partitu niz etxetik

bainan aitamentzat... aitak, ez dute, gizonak ez dute erakusten beren emozioerik, bainan amak ba. Hara!

7. Nagusiak langileei ardoa eskaintzen

- **Erref:** MAK-002/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Baionara heldu zelarik, enplegatu zuen akobatuaren etxean bi urtez egon zen Angèle, ezkondu arte. Nagusi oso ona zuela dio, nahiz eta denbora horretan legerik ez zen. Ardoa eskaintzen zien langileei.</p>

Transkripzioa

- Ta orduan hunat airatu zinelarik, "avoué" horren etxean bizi zinen, ez?
- Hor bizi ginen zeen eta ez zen, oh! bainan erran behar dautzut orduko dretxoak zer ziren. Langile joaiten zinen, etxeko langile, biziki jende seriosak eta onak ziren nahi baduzu, bainan ez zen ordüan legerik orai bezala, oporraan ukaiteko eta, igande atsaldiak nintuen bakarrik, jalitzeko, eta gero memento batez jin zen ortzegun atsaldetan'e. Denbora hetan ortzeguna zen haurrentzat ere jalitzen zen memento, permisionia, eta ortzegun atsaldetan jalitzen nintzan, bainan, bestenaz, ez, ez, ez.
- Ta nausi onak ziren?
- A, ba, ba, biziki, biziki jende xintxoak eta errespetüa bazutena, nahiz eta legerik ez zen oraino ordüan jende langileaantzat oporraan emaitako eta istorio.
- Horietan ere izaten zen dudarik gabe denetarik, ez?
- Ba, ba ba. Ez, ez, ez, arno ona balin bazuten igande guziez eta idekitzen, e ben behar zen sukaldean, langileaantzat bazen arno onetik, hori erran behar dut. Vouvray herrikoa zen nausia, eta bazuen beti, Vouvray, ez duzu zuk aditzia. Arno ona bada Vouvrayn iten zena eta idekitzen zuten igandetan.
- Ta zenbat denbora ari izan zinen?
- E ben, bi urtez, ezkondu arte, ta gero haurrak izan eta, alaaianan, erraiten zen emaztiak behar du etxian haurrak zaindu!

8. Neska anitz Parisera joanak

- **Erref:** MAK-002/009
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Neskametza diasporan
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Angèlek Euskal Herrian egoteko hautua egin bazuen ere, neska anitz Parisera joaten zirela azaltzen digu. Aldiz, serora talde batek eginahalak egiten zituen ez zitezen denak hara joan!</p>

Transkripzioa

- Hola [...] hortan neska gazte aunitz joaten zen hola edo Baionara eta batzu joaten ziren Parisa ere...
- Anitz joaiten zen Pariserat, banan hemengo, hemen bazen, etxeko sehiez eta okupatzen ziren, serora talde bat. Hek inahalaz begiratzen zituzten neskak sehi ez joaiteko Pariserat. Nahi ziuzten hemen kokarazi.
- Ta ezagutzen duzu, hola, zure adinekoak-edo Parisera gan zirenak?
- Pariserat joan direnak, ba, ba, ba. Ta han ezkondu direnak.
- Ta geroztik han egon dire?
- Han egon dira ta gero badituzte oporretan jiten dira, ta badira batzu, ene koinat batek ere badu etxe bat, udan jiten dena. Baina paristartu dira, beren bizia han in dute.

9. Senarra ola batean lanean

- **Erref:** MAK-002/010
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Lapurdiko lantegiak

Laburpena:

<p>Baionan bizi izan da 60 urte hauetan Angèle. Senarra ola batean aritzen zen lanean, baina laborantza maite zuen. Bera ere baserri batean sortu zen, eta baratzeari esker, lurraren pasioa atxiki ahal izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Zu gero, orduan, handik lan hori finituta segidan esposatu zinen?
- Ba, ba, ba, segidan.
- Ta Baiona...
- Baionan bizi izan niz eta Baionan bizi niz delako hirutan hooi urte huntan...
- Ta zure senarra...
- Ene senar zena ari izan /aizan/ zen ondarrik lantegi batian, Fonderia deitzen dena. Banan ene senarrak laborantza zuen maite, baina laborantzan'e batentzat da tokia. Eta gero, ahal ziin moldian bere lurreko eta, afizionia, bazuen baratzia... ta baratzian hazten zituen ere lapinak. Harek... harrek lantegitik jalita, beren sosegüa biltzen zuen bere baratzian.
- Ta bera zenbat urterekin gan zen etxetik?
- Hura berdin, ni bezala, nik, enekilan, harek'e... hooita hiru-lau urtetan partitu zen etxetik... hooita bost urte... ez, gabe, gabe! Hooita bost urte gabe, partitu zen. Haren etxian gauza bera zen, hiru haurride baziren eta batentzat zen leküa.

10. Baratzezainak euskaraz eta gaskoiz ari

- **Erref:** MAK-002/011

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Garaian, merkatuetara etortzen ziren baratzezain gehienak euskaraz eta gaskoiz aritzen ziren. Baiona Ttipian aldiz, denda gehienetan euskaldun zirela dio Angèlek.</p>

Transkripzioa

- Hunat airatu zineztelarik ta, bazen, orai erraten da euskaldun gutti dela Baionan, bainan garai hortan bazen...
- Garai hartan bazen, bazen. Ni etorri nizalarik, Baionan, merkatüan, entzuten zinuen asko eskuaraz eta kaskoinez. Baziren jiten zirenak [...] merkatü goizetan, behar zen ikusi zonbat baratzezain eta bazen eta merkatüa iten zen. Bazen akabala merkatüa're Santespiritan. Nik ez dut ezautu, bainan bazen. Ta horgo, Baiona ttipiko denda gehienetan eskualdunak ginen...
- Ta...
- Ba, ba harategiak ala bolanjerian eta, ala ondoan zen "Guyenne Gascogne" deitzen zen lehenao, han ere eskualdunak ziren. Eta bolanjerian ere, hiruetarik biak eskualdunak ziren.
- Ta pixkanaka-pixkanaka galdu da?
- Arrunt galdu da, emeki-emeki galdu da, ez dakit nolaz, emeki-emeki gauzak kanbiatu dira, ba.
- Ta baziren toki batzuk eskualdunak ta bertzeak ez? Baiona ttikian...

11. Gizonak pilotan

- **Erref:** MAK-002/013
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:11:46. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Baiona Ttipiko trinketeen ostegunero ziren pilota partidak. Senarra igandetara aritzen zen pilotan. Angèlek azpimarratzen digu ez zela garai horretan beste kirolik. Futbola eta errugbia geroago etorri ziren.</p>

Transkripzioa

- [...] pilotan?
- Ez zen besterik, ez zen besterik, ene anaia zena eta eskolatik jalita, behar ziin pilotan ari izan /aizan/ pixka bat, ta gu neskak partitzen ginen bidian, berak lasterka atxemaan gintiin ondolik, ez bitzen erran behar etxian galdu ziila denbora etxerat jin gabe, pilotan. Pilota, horko afizione bakarra hori zen, ez zen besterik, ez zen "rugby"arik, ez futbolik aditzen /aitzen/ sekula-sekula.
- "Rugby" a gero etorri zen?

- Gaztiak han eiten ziren eta igandetan pilotan eta kantuz ba ostatüetan entzuten zintin gaztiak pilotan ari... edo, kantuz ari, ez zen besterik.

12. Neskak birletan eta dantzan

- **Erref:** MAK-002/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Elizak kudeatzen zuen gazte bilgunean elkartzen ziren gazteak. Neskak birletan aritzen ziren nagusiki. Herriko bestetan, pilota partidak bururatu ondotik, dantzatzen hasten ziren. Senarra hola ezagutu izan zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta neskak nola libertitzen ziren?
- Neskak, gaixoa, gu, ahal giniin bezala. Baginiin “patronage”a deitzen zen bat, toki bat, han aritzen /artzen/ ginen birletan eta elgarrekilan solasian, bainan behar zen iluntzonietako /iluntzsoinuetarako/ etxean sartu. Gure goitibehitia hala zen. Eta herriko bestetan aritzen /artzen/ ginen pixka bat dantzan. Pixka bat erraten dut, zeen eta pilota partida zen herriko pestetako, pestarik handiena, pilota partida zen, ta hura finitzen zen, berant, heldu bita, iluntzoniak /iluntzsoinuak/ aintzin. Pilota partida finituta, denbora gutti zen gero dantzan aritzeko /artzeko/.
- Ta erran duzu birletan aritzen zinezela?
- Ba.
- Zer da hori?
- Birleta, frantsesez “les quilles” erraiten da. Zazpi eta, gizon ezartzen duzu... zurezko badira ta bula batekilaan heekilaan behar dituzu /tuzu/ hek erorarazi.
- Ta nun aritzen zinen?
- Hori zen, “patronage” deitzen zen hori, elizak zuen eta, aterbe bat, gazteen biltzeko, “mais” igande ta bezperen ondoan, badakizu, igandia sakratüa zen. Bazen lehenik meza eta baziren bezperak.
- Ta bietara gaten zinezten?
- Bai eta nola!
- Eta orduan han ematen... egoten zinezten egun guzia [...].
- Eta gero han elgarretaratzen ginen, delako, mutikoak joaiten ziren bere eskualde, edo pilotan edo afizione zutenetan, eta gu joaiten ginen han elgarretaratzen ginen ixtaño bat, bainan beti iluntzonietako /iluntzsoinuetarako/ behar giniin etxerat xintxo.
- Ta han ezagutu zinuen senarra?
- Han ezagutu nuen [...] ene senarra.

13. Elizako istorioetarik Radio Monte Ulía irrattira

- **Erref:** MAK-002/015
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Amatxik kontatutako istorioak elizakoak ziren nagusiki, fededun handia zelako. Berantago, fonografo bati esker, Tino Rossi frantses kantariaren diskoak entzuten zituzten. Lehen irratia 18 urte zituelarik heldu zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, denbora hetan, telebistarik eta ez zen ta ze kontatzen, haur denboretan ta istorioak kontatzen ziuzten edo?
- Haur denborako istorioak, nola erran behar dautzut nik, istorioak, zure amatxi zenak biziki istorioak kondatzen zitiin nahi baduzu, bere haur denborakoak eta nola aritzen /artzen/ ziren eta, gero... zerari erlijionari buruz biziki istorio kondatzen zaunkun. Eta emaiten zaunkun eman dezagun negūan ez baginen bezperetaat joaiten ahal, han berian inen giniin gure arrosarioak eta, bezperak kantatuko. Eta istorioak, istorioak, bazen gure etxian mutil bat egon zena anitz istorioa kondatzen zaunkun, banan orai ahantziak ditut, banan, denbora hetan bazakin zernahi istorio. Pascal, orai ez dakit ze adinetakoa izaiten ahal den gizon hura, edo mundu huntan denez, hazpandarra zen. Egoiten ginen loriatuak hari beha, gero kanpotik jiten ziren jende batzu, hek'e istorio kondatzen ziuzten, hau eta hura, eta hola... Bainan gure amatxi zenaakilan biziki gu haziak izanak gira, erlijionari buruz biziki zuzenki ari izanak /aizanak/ gira eta nola azken judizioko istorioak kondatzen zaunkun beti oroituko niz, tronpeta lazgarria azken mementokoa eta, Jesus jinen zela eta onak eskuinean, eta ezkerrian berriz, gaizki erabiliak zirenak, eta hola. Eta gero elizako kantüak, ta bezperak'e kantatzen gintiin frangotan igande atsaldetan jalitzen ahal ez ginelarik.
- [...]
- Eta bazen, bazen "phonographe" bat gure etxian. "Phonographe" bat bazen, eta hartan'e diska batzuk entzuten gintiin, Tino Rossiinak'e oroitzen niz, entzunik, pentsatzera emazu /pentsemazu/, diila hirutanooita hamar urteko istorioak dira edo gehiogokoak, nolaz jina zen "phonographe" hura gure etxerat; baitzen gure ama zenaan ahizpa bat hirian egona zena, nik uste hark ekarria zuen... ez dakit, diska batzu entzuten nintiin. Eta gero jin zen noizpait, nik hemezazpi-hemezortzi urte ninttilarik, irratia, lehenbiziko irratia, "Radio Monte Ulia" entzuten giniin. Hola!

14. Amatxiri biziki hurbil

- **Erref:** MAK-002/016
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Txikitan, supazterrean kontaktzen zizkion istorioak amatzik. Sei urteetan eskolara joan zelarik, oroitzen da Angèle pena handia sentitzen zuela bere amatxi uzteagatik. Aitatxi bost urte zituelarik zendu zen.</p>

Transkripzioa

- Hori, delako istorioak, oroitzen zara ze, amatzik edo kontatutako...
- Amatzik konstatut... ez ez ez, arrunt, badut lano bat hor, ahantziak ditut.
- Ta noiz, igande atsaldetan, supazterrian...
- Ba, ba, ba, supazterrian, ta gero [...] ba guk, amatzik giniin biziki ondoan; gure ama kanpoan aritzen /artzen/ zen lanian ta hola, biziki haren ondoan hazia izanak gira. Ta partitu nintzalarik eskolaat, badakit sei urtetan izigarriko pena niila, zeen eta egun guzian ez ginen jiten; Luhuso zolan eta ttantta baten etxian bazkaltzen ginen eta haurra, ni bospasei urte partitu nintzalarik eskolarat. Egunduzia partitzia triste zauntan, guziz amatziiin uzteko.
- Ta aitatxi're bazinuten?
- Ba aitatxi're baniin, bainan nik, nik uste lau urte bost urte nintuen hura galdu giniilarik eta aitatxi, aitatxiz doi-doia dut gogoan. Ene ahizpak, Agnak, hobeki ezautu du, ta bestiak ere ba, bainan nik, badakit zaldiz erabiltzen zela, eta gero beste ez, aitatxiin istoriorik ez dakit gauza handirik.

15. Neguan kloskak janzen

- **Erref:** MAK-002/017
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Txikia zelarik, autorik ez zen oraino, eta den-dena oinez egiten zuten. Neguan, iztila zegoelarik, aita egindako zurezko kloska itzatuak janzen zituzten hurrek.</p>

Transkripzioa

- Ta orduan ez zen autorik eta orduan herrira beti oinez?
- Beti oinez, oinez. Eta gero, negüa zelarik eta, istilak, ez zen alaietan orai bezala gudronatüak bidiak. Bagaintin, aita iten zaunkun, kloskak erraiten giniin, eta zura zen eta zura haan gainian iltziak emaiten zizuten, ez lerratzeko. Hirian edo Luhuso xolan egoiten ziren jendeak ez zuten gure, holako oinetako molderik, hek kautxüa zuten azpian, aldiz gu eliza erdian joaiten ginelarik, gure zapeta iltzatüekilan, klosk-klos-klos iten giniin harrootsa; bate ez giniin maite. Aldiz, besteak isil-isila ziren.
- Hortako erraiten zen klosk?
- Ez dakit guk beti kloska aitu dugu, ba, ba...

16. Egunduzia goizez eta arratsez otuizak

- **Erref:** MAK-002/018
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Katixima hasi zutelarik, goizeko eta arratseko otoitzak ikastera behartuak ziren. Katiximan bai eta ere eskolan ikasitako kantu guziak euskaraz ziren. Herriko haur guziek euskarazko katixima jarraitzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta, erran duzu elizako kantuak eta kantatzen zenituztelarik, kateximan ikasiak edo amatxiikin?
- Amatiikilan ta gero kateximan ez zen biziki kantuz aritzen /artzen/ gure apez gaixoa... Apeza, gero gaztetu ginelarik, adin batian aritzen /artzen/ zaukun, ba, biziki xintxoa zen, ba, ontsa behar zitiin vokalismak eginak eta kantüa ongi behar ziin erakutsi. Bainan ez, amaxi, amaxik bazakiin. Eta amaxi, guziz otoitzak eta xintxo, arrats guziez behar giniin otoitza egin, e? Kondatu dautzu jada ene ahizpak? Ez dautzu erran hori? Denak belaunikatzen ginen gure arratsetako otoitzaan egiteko, eta ahantxu loaletüak, bainan in behar giniin, jakizazu, xuxen. Eta gero katiximan abiatu ginelarik, bistan da, behar gintiin goizeko eta arratseko otoitzak hek xintxo ikasi lehenik. Eta gero komunionekeo adinera pastuta, gero neskato gazteen lerroan ginen, ordüan kantariak baziren. Ordüan kantarietan ginen, elizako kantarietan. Ordüan apezak erakusten zauzkun kantüak, hara...
- Eta egunero etxian, ze, arrosarioa egiten zinuten edo?
- Ez, ez, baziren goiz-arratseko otoitzak ziren, horiik baziren, eta gero, katiximan hasten zinelarik, horiik ikasten zintuen.
- Ta zer ziren, oroitzen zira?
- Ba, ba, ba, ba, dena baduzu oino´re ondoko katexima, ba...
- Ta oraiko otoitz berak ziren?
- Bai, ba, ba, ba. Orai, bistan da, ez da egiten gehio goiz arratseko otoitzak, bainan gogoan ditut nik, e? Eta erraiten dute beti, denak otoitzak eskuaraz gintiin, baziren guarda haur batzu, hek frantsesa bizik ez zakiten eta kateximan, halere dena eskuaraz egiten zen.
- A bai, dena eskuaraz?
- A, ba, ba, ba, ba. Eta gero, memento batez, baziren errientsaan haur batzu, eta guarda haur batzu hek ez zakitenak, heri zonbait minutaz iten zankoten beren gisako katexima apezak... bainan gu beti eskuaraz, ba.
- Ta delako amaxik erakutsitako kantu hoik...
- Gogoan ditugunez? Ez, ez, ez, gogoan ez ditut ez, gogoan, ez, ez, ez.
- Orai kantatzen ez direnak dire?
- Ez dut uste orai, xintxo-xintxo heldu zauzkitanez gogorat, bainan ez, ez, orai kantatzen direnik ez dakit. Baziren kantikak... liburuxka batzu, bainan ez niz orroit harrekilan ari izanik /aizanik/ kantuz biziki...
- Ta eskuaraz, kantuak?
- Ba, ba, denak eskuaraz kantüak gintin. Kantuak eskuaraz gintiin eta baginiin, eskolan ere, e... errients bat, frantximenta zen, banan eskuarazko kantüak erakusten zaunkun. Eta bazen memento batez, "Kaiku" kantu bat zen, eta bada memento batez "arrantza bat sartu zitzaudan, uspela nuen oinean", eta gu haurrak "arrantza bat sartu zitzaudan". Guk "arrantza bat" ez ginankiin zer zen, guk "elorrria" erraiten giniin, elorri-xixta! Bon, fini! Aski duzie bestaldiko jakitia! Eta bestaldiko behar giniin ikasi "arrantza" hori zer zen. Hara!

17. Gerla denboran alsaziar haurrak

- **Erref:** MAK-002/019
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:24:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:

<p>Bigarren mundu gerla denboran, alsaziar haurrak egon ziren Luhuson eta Makean. Eskola berean egon zirela, eta lagunak bilakatu. Egunero, frantses andereñoak euskarazko hitzak irakasten zizkien.</p>

Transkripzioa

- Bainan emazteki hura, nahiz frantximenta izan, biziki interesgarria izan da enetzat. Zeen eta gure haur-denboran, gerla-denbora zen, alemanak izan dira, gu eskolan ginen denboran, eta eguerdi eta bi orenak artian, egoiten ginen, baginiin guk denbora, alaaian, ttanttaan etxean bazkaldu ta eskolako denbora jin arte egoiten ginen plazan. Han ikusten gintiin gure alemanak ari hor manobretan. Eta baziren jinak alsaziano haurrak, ez duzu pentsatzen nun den Alsazia?

- Alemanekin etorriak?

- Hek bestalde, zeen eta gerla, hastapena, han izana zen, eta gerlatik ekarriak ziuzten Luhusoko familietaat, eta beste anitz'e bazitazkeen, eta alsaziano haur hek familietan atxiki ziren eta eskolan erabili dira gurekila. Eta delako errients famatu hori, erraiten bitautzut, gogoratu zakon haur horiik, "hemendik joaiten direlarik behar dute zerbait ikasi eskuaratik", eta egun guziez erraiten zankuten, hitz bat behar zuten. Eta haur gaixoak, gogoan dut, erabiltzen zirela, pasaibidian eta bere hitzen hitzartzen, "allumette"-supiztekoa, "allumette"-supiztekoa, hola ontsa gogoan atxikitzeiko gauza hori. Hara, holako istorio batzu gure haur-denborakoak baditut gogoan.

- Ta hori eskolan ikasi zuten, e?

- Eskolan errientsa frantximenta zelarik, harrek ukan ziin aski izpiritu, behar zutela joan hemendik zerbait oroitzapenekila. Eta haur hek joan ziren gero, euh, bai Itsasuko gararat, orgetan joan ziuzten, eta gure ttanttak erran zukun "agurtzen ahal dituzie /tutzi/, beharbada sekulan ez dituzii ikusiko haur horiik gehiago".

- Ta hoikin lagunak zineten?

- Ba, ba, ba, lagunak ginen ba, ba, ba, ba...

- Ta nola mintzatzen zinezten horiekin?

- A hekila frantsesez beti, mintzo ginen, ba, ba.

- Ta ikasi zuten eskuara?

- Ez baitakit, nahitez, familia eskualdunetan balin baziren, ikasi dukete, entzun dukete zerbait, bainan gure errientsak baziin horiintzat atenzionia.

- Ta zenbat ziren?

- Ez dakit. Orai gogoan ditut hiru-lau familietan segurrik /seurik/. Xuartz eta Hartz zuten izena batzüik, eta hola. Horiik gure haur-denborako istorioak ziren.

18. Alemanak etsai bilakatu

- **Erref:** MAK-002/020

- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:

<p>1940an heldu ziren alemanak. Garai bortitza zen, etxean bezala egiten zutelako, dena manatuz. Etsai bilakatu ziren. Luhusoko emazte bati ilea moztu zioten, aleman batez maitemintzeagatik.</p>

Transkripzioa

- Eta alemanak jin zirelarik, gure amaxi gaixoak, alaietan, berroia zen jada jin zirelarik eta, Luhusorak alemanak, etxian arribatzen niz eta... niz... gira!, eta gure amaxik "ba-ba, gaixo haurrak, orai aleman gira, aleman gira". Hori beti gogoan dut. Harek fite konprenitua ziin, okupatzen bagintuzten, heen meneko ginela...
- Ta beldurra bazineten..
- Beldurra-beldurra, ikaragarriko eta, arrangura zen, ez zen, memento batetarik goiti ez ziniin argirik bizirik behar, behar ziniin zure leihotako berinetan eta ezarri oihala ez zezaten kanpoan ikus argirik... Aa ba, alemanak sartzen ziren bere etxian bezala gure etxetan...
- Ta zenbat denbora egon ziren?
- Ez dakit... hiru-lau urte egon ziren... seurik? Seurik. Eta izigarriko gauza bortitzak izanak dira, izigarriko gauza bortitzak. Ene izpirituan ez dut sekula ahanzten ahal istorio batzu, nola jende hek jinak ziten manatuz, eta nola etsai bilakatu ziren. Istorio bat'e gertatu zen, ari ziren /aiziren/ manobretan Itsasun, Itsasuko zubiaan azpian, eta beren paketeak bizkarrian ziuzketen, eta alaietan batto itotzen ari zen...
- Alemana?
- Alemana. Eta pentze batian, Itsasuko jendiak ari belarretan, ta ikusi zuten gizona itotzen ari: ta ze uste duzu in zutela?
- Itsasukoek?
- Ba.
- Laguntzera joan?
- Ez. Bat gutio, utzi zuten. Eta hantik etorri ziren aintzindariak galdezkatzera jenderi, ta "ez duzii ikusi? Ta ez duzii lagundu? Hori, lagundu bazinute zuen presionerak etxerat utziko zintuzten." Hara, hori, gerlako istorio tristiak dira.
- Baziren hola bertze istorio batzu?
- Jendiak nola etsai bilakatu giren. Zeen eta bate ez zen, horik'e nahi, ez ziren bere nahiz jinak, bainan hola zen.
- Ta denbora hortan zu eskolan zinen?
- Gu eskolan ginen. Eta gero, joan zirelarik, gero in ziuzten alaietan, jendiak, familiartu ziren frango horiikilan, frango emaztekik, maitemindu ziren ta hola, eta gero begietan hartu ziuzten hemengo gizonek emazteki batzu, eta ilia moztu ziozkaten joan zirelarik eta, alemanak.
- Zetako? Hekin...?
- Lagunak izan zirelaket.
- Frango bortitza izan zen?
- Bortitza izan zen, ba. Izigarria.
- Ta nun...
- Hemen, Luhuson seurik batto gogoan dut, goarda baten emaztia zen.

- Ta denen aintzinian...

- Denen aintzinian, ba. Gero, denen aintzinian ez ziren denak bildu, e? Jakizazu gauza hori ez zutela in, ez zutela hedatu, noiz inen zuten, baina jakin zen istorio hori.

- Ta hori... herriko gazteek?

- Herriko gazteek, ba.

- Ta gan ziren neska batzu Alemaniarat edo?

- Ez, ez, ez, baina aleman haurrak sortu izan dira hemen. Hori denen jakinian, e? Nola han sortu dira eskualdunen haurrak. Mundua mundu deno hola gertatzen da.

19. Eskolara larunbatetan kantatzen ikastera

- **Erref:** MAK-002/021
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Hiru eskola irakasle zeudela dio Angèle. Biziki bortitza baldin bazen ere, anitz maite zuen Hourcadette andereñoa. Larunbat arratsaldeetan, harengana joaten zen kantuz ikastera.</p>

Transkripzioa

- Ta erran duzu, delako errientsa hori, nola izena zuen, maite zenuen errientsa?

- Mademoiselle Hourcadet. Biziki bortitza zen, baina hori ttipien eskola zen; gu joaiten ginen kantuz ikasterat bakarrik harenganat larunbat atsaldetan. Elgar aditzen zuten hiru errient eta errients ziren eta horrek bazakiin musikan eta denbora hetan, oraiko mementoan eskola guzietan baduzu, presuna bat jiten dena kantuz eta musika egiterat. Aldiz, ordüan ez, eta hiru erakasle hek bazakiten horrek bazuela musikaren eta kantuaeren doinüa. Eta heldu bita larunbat atsaldetan, ez dakit oren bat egoiten ginenez, nik uste horrekilan, hiru eskoletakoak horrenganat joaiten ginen.

20. Txikitatik kantuz ari, frantsesez eta euskaraz

- **Erref:** MAK-002/023
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Hourcadette andereñoa frantsesezko bai eta euskarazko kantuak irakasten zizkien haurrei. Elizan, mekanika lanetan edota bestetan, jendea denetan aritzen zen kantuz. 'Kaiku' kantua ematen digu Angèle.</p>

Transkripzioa

- Kantuak eta, ze kantu ikasten zinuten...?
- Mademoiselle Hourcadettekila? Frantsesak eta kantüak, eskuaraz ere, ba... hitzen... baginiin batto, izigarri, izigarri luzaz eta ari izan /aizan/ zaukun serioski haren-eta erakusten.
- [...]
- Ba ba ba, ba ba.
- Eta eskuarazko kantuak...?
- Eskuarazko kantüak, ba.
- Eliza, elizakoak ikasten zenituzten amatxiikila?
- Eta elizan. Eta horrekila, frantsesak eta eskuaraz, eskuarazkoak'e in izan ditugu /izantu/.
- Ta bertze... hola bertze nunbaitetik ikasten zinuzten ere bai, euskal kantuak elizakoak ez zirenak?
- Ez, euh, entzuten hola jendiak, kantuz.
- Gizonak aritzen ziren?
- Gizonak aritzen /artzen/ ziren, ba.
- Emaztekiak? [...]
- Ez, ez. Gero entzuten ziren kantuz, badakizu, mekanikako lanetan eta hola, ogi joitetan eta, biltzen zirelarik, eta gero pestetan. Eta jendiak komunione, eman dezagun, hurrek iten zutelarik, komunione handia deitzen zen ordüan, hamabi urtetan; jaunhartzea iten zen, ordüan familia elgarretaratzen zen eta, familia elgarretaratzen zelarik, ikasten ziren kantuak. Ezkontzetan'e gauza bera. Batetik besterat pasatzen ziren hori're lehenoko kantuak.
- Ta ze kantu ziren, oroitzen zira?
- Bo! Batuzu zernahi! Zernahi kantu baduzu. Gure errientsak erakutsi zankuna zen kantu, boh, "Kaiku", "Kaiku-esnia".
- Oroitzen zira horren aireaz?
- Boh... bistan da, oroitzen nizala!
- Nahi duzu kantatu?
- Ez... orai jinen zautanetz gogorat! ... kantu..."Kaiku" hori...

"Neere andrea, andre ona da,
gobernu ona du auzoan,
hartzen duelarik bere alaba...
anera ra laralarairua...
Aizazu, zer nauzu, ... anana,
horrela munduan ere
biak biziko gerare gu
baldin bazare kontentu,
baldin bazare kontentu.

Nik beti freskotxorik tabernakuaaa ,
sototxuan deraukat ardo gozoa...
Nik beti freskotxorik tabernakuaaa,
sototxuan deraukat ardo goxoa.

Ai zer kontentu, ai zer alegre,
eskaintzen dautzut nere maitia,
arrultzetxoak eta kaiku-esnia,
arrultzetxoak eta kaiku-esnia.
Kaiku kaiku kaiku kaiku kaiku esniaaa,
kaiku kaiku kaiku kaiku kaiku esnia."

Hori ari izana /aizana/ zauku errepikatzen hori Jinkoak daki zonbat denboraz, eta behar giniin horrekilan kantu zuzen-zuzen-zuzena / xuentxuentxuena/ ari izan /aizan/ harrekilan. Gero hori badakit eta beste batekila delako “arrantza bat sartu zitzaudan”, hortan zen nik uste, “couplet” hortan, batian, bainan hara! Pixka bat jakin duzu, ez dut gehiago bozik nik.

- Ta gero, gustatu zaizu, ez? kantuz eta kantuak...

- A bai! Nik maite dut oraino're erabiltzen niz ni korala batian, Baionan.

21. Milafrangara elkarrekin bizitzeko moldeak ikastera

- **Erref:** MAK-002/024
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Zertifikata lortu ontotik, urte batez egon zen Luhuson medikuaren laguntzaile gisa. Berantago, Milafrangan serorak arduratzen ziren eskolara joan zen, laborarien emazteei zuzenduak zitzaizkien klaseetara.</p>

Transkripzioa

- Eskolan, noiz utzi zinuen eskola?

- O! Denbora hetan “Certificat” deitzen zen hori behar zen in eta hamalau urte artio ibiltzen zinen. Eta nik ama gaixorik zela ta goizik behar niila etxean egon, hamahiru urtetako galdatu zuten permisa pasatzeko, hamahiru urtetan in dut eskola... utzi dut eskola “Certificat” deitzen zen orduan, bon. Gure errientsak bazuten mereximendu, zeen eta gu prestatzen gintuzten delako etsamina horren prestatzeko; bestek eskola bukatuta're ooino zonbait, multxo bat, atxikitzen gintuzten bereziki iteko bere... ahul ginen batzüitan, hobeki eta entseatzeko. Beraz, etxian hamahiru-hamalau urtetan. Hamalau urtetan izan niz Luhusoko medikuaan etxean'e laguntza egiten. Bere sehia ez zuela ontsa ta hau eta hura, eta gero hamabost-hamasei urte eta etxian; banan negüan joaiten ginen, neguko sei hilabetez, ordüan erraiten zen “des cours ménagers”, heldu bita emaztekiak jakin behar dituen gauza batzu: edo haurrari moldatzen, edo kozinergoan, edo lisaketa iten eta, holako gauza. “Économie domestique” bazen hura ere ba, eta laborantxako emaztekieri buruz idekia zen. “Cours ménager agricole” deitzen zen hori.

- Ta nork ematen zizuen hori?

- Hori, jiten zen emazteki bat; bi emazteki jiten ziren Luhusorat, lehenik baserriko haurren neskeri erakusterat emaiteko zer erakasten zen. Jiten zen aste bat hilabetian eta gero gure aitameri eta, erakusten zankoten “hara, zuen hurrek eta, zer behar luketen ikasi”. Eta bon, heldu bita hiru urtez erabilia niz negüan, lehenik Milafrankan joaiten ginen, eta azken urtia euh... Lekuinen izan dugu. Heldu bita, laborari neskek baginiin parada negüan erabiltzeko neguko sei hilabetetako aste batez, delako eskola hortan.

- Ta han egoiten zinezten edo egunero...

- Ba, ba, ba. Ez, ez, ez, han egoiten ginen. Ordüan ikasi dugu elgarrekilan bizitzeko moldiak eta hola, eta gero hiru urteren burian baginiin etsamina bat.

- Ta ongi bizitzen zinezten han?

- Luhusotik baginen nik uste bost-sei neska erabiltzen ginenak Milafrankan. Euh, nola ziin izena...Argizabal etxe hark, eta gero azken urtian, berriz, Lekuinen, bazuten serorek etxe bat Lekuinen, eta han egin giniin azken urtia. Eta gero etsamin hura pastu giniin Donapaleun.

- Ta han zer ikasten ziniin? Josten ta holako?

- Lehenik kozinatzen. Baginen bi partetan plantatzen ginen neskak, batzu aritzen /artzen/ ziren baratzian eman dezagun, eta bertziak kozinatzen, eta geo bestiak baratzian zirelarik, bestiak kozinatzen. Eta gero ikasten giniin poxi bat josten, eta lisatzen, eta gero "Économie domestique" anitz idatziz behar gintziin ikasi, nola behar zen kondüak egin familiaan eta. Gero haur ttipien moldatzeko manerak. Mediku batek errana omen zion gure andreari, gure erakasleari behar zirela baserriko emaztieri erakutsi nola behar ziren artatu haur ttipiak. Eta... bere burüa nola behar zuten zaindu. Hara!

22. Auzoak lehengo emaginak

- **Erref:** MAK-002/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Etxetan sortzen ziren haur guziak denboran. Medikurik ez zelarik, auzoko bat etortzen zitzazion amari haurra sortarazten laguntzera. Merezimendu anitz zuten emazteek, errekarra haiek joan behar zutelako ur bila.</p>

Transkripzioa

- Garai horietan, etxean sortzen ziren, ez, haurrak, etxeetan?

- E.. etxetan sortzen ziren denak. Gure amak ez du medikurik izan haurraan ukaiteko. Lehenbiziko hiru haurrak sortüak dira auzo batekila. Auzoa jiten zen laguntzerat eta bere ama ere han zuen. Eta auzoko emazteki hura deitzen ginuen "amaño" beti guk. Eta gero bosgarrena eta seigarrenaantzat, uste dut medikua ukan zuen.

- Eta auzoko hori, hortan aritzen zen etxe guzietan?

- Ez, ez, ez, auzoetan, auzoetan bakarrik.

- Eta haur aunitz hiltzen zen, ez, txikitan?

- Haurra amak beti bularrian hazi ditu ttikitan, eta gero, ez dakit, ez dakit nola pasatzen zen gure denboran. Gure amaxi're beti han zen. Baserrietan biziki lagundüak ziren, amak, ez ziren bakarrik; baina, denbora hetan bazuten izigarriko mereximendüa, gaixo amak eta amaxik, ez zen etxean urik, oino behar zen errekarat joan gure xuriketen eta, garbitzeko.

23. Emaztekiak barneko bai eta kanpoko lanetan

- **Erref:** MAK-002/026
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:37:02. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Emaztekiek lan anitz egiten zuten: haurrak zaindu, ogia egin, jatekoa prestatu, landetan aritu… Etxean ez zituzten produktuak Luhusoko denda batean erosten zituzten garai horretan.</p>

Transkripzioa

- Lan handia egiten zuten, ez, emaztekiek?
- Emaztekiek? Bai lana iten zuten, zeen eta etxia, baratzia iten zuten, etxeko laboria iten zuten, hasteko ogia're erre zer... egiten zen. Lehenik jiten ziren eiherazainak, zure ogi-bihia edo zure arto-bihiak joaiten zuten eta gero irina ekartzen. Irin hura behar zen zetabatu, erraiten duzu, behar zen zahia kendu, hura're ama ba ikusi dugu horren egiten. Eta gero, asteko ogia iten ziniin.
- Astero?
- Aste oro. Eta behar zinuen labia gorritu. Labia're hura're emaztekiaren lana zen.
- Ta gero haurrak artatu?
- Denak, bai, bai, bai, bai.
- Jatekoak ere?
- Jatekoa're dena prestatu, bai, bai.
- Zer jaten zen garai hartan?
- Garai hortan ni oroitzen niz eta, etxeko gauzetaz haziak ginela. Ez zen gauza handirik erosten. Saltzen zintuen oilasko eta arrultze eta hoitarik etxian behar zena atxikiz, bainan... gero joaiten nintzan Luhusorat denda batetarat... arrultziak eta, joaiten gintuen, eta ordainez... eros, eta gasna're saltzen ginuen, gasna ttipi batzu're. Eta ordainez ordüan behar zirenak, olio eta xokolet eta kafe ta horik erosten zintuen, zure baratzeiko eta, zure arrultzeen sariarekilan, gero ordaintzen ziren horiik.
- Ta gero zer saltzen, animaliak eta kanpora saltzen ziren horiek?
- Ba, ba. Sasoin batian bildots-sasoina baziniin, bildotsak saltzen ziren; guk hurrek baginiin ba bildots-sari bat urte guzietan, baginiin bildots baten eta, dirua, ukaiten giniin.
- Ta ze iten zinuten horrekin? Altxatu?
- Altxatu, altxatu! Ta gero jalitzen ginen bakarretan dudarik gabe ba / duiaka ba/. Lurderat joaiten ginen, badakit, eta han "pélerinage" deitzen zen ordüan gure sakeleko sosarekilan erosten gintuen gauza batzuk, ta hola!
- Ta orduan, berriz, erran duguna hastian, emaztekien lana orduan jatekoa prestatu, haurrak artatu, ta...
- Eta landetan ere aritzen /artzen/ zen'e emaztekia, asko, asko! Ba, ba.
- Nork iten zuen lan gehiago, gizonek edo emaztekiek?
- Zer, kanpoko lana?
- Kanpoko.
- Kanpoko, bistan da, gizonek iten zuten. Gizonek ez zuten laguntzen etxean barnean. Bainan emaztekiak kanpoan eta barnian iten zuen.

24. Etxeko mozkinak etxean berean jaten

- **Erref:** MAK-002/027
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:40:51

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Artoa eta garia egiten zuten etxean. Etxeko mozkin gehienak etxean baliatzen ziren denboran: arno, esne, xingar, oilasko etab.</p>

Transkripzioa

- Eta etxean ze... artoa eta ogia?
 - Arto ta ogia, ba. Gero arnoa, arnoa're iten zen, errazu, urteko arnoa iten zen denbora hetan, etxian.
 - Eta arto, ta arno hoik etxeko atxikitzen zenituzten edo saltzen zen gero?
 - Ez niz oroit saltzen giniila artoa. Ez ogia're, nik uste urtekoa baliatzen zen. Artoa beharba saltzen zen pixka bat... Bainan ez dut uste, ez dut uste. Ez, ez, etxeko mozkinak etxian baliatzen ziren, zeen eta artoa, alaaianan, baliatzen ziniin asko, urdeen eta, gizentzeko, hola, oiloentzat eta. Gero, ardiak, ardiak baziren, ardiak ez dakit emaiten zenetz zaldarerik orduan, denbora hetan ez dut uste. Arrunt belarra ta soroarekila pazkatzen ziren orduko ardiak. Ez, ez.
 - Bai. Ta orduan, kanpotik, erran duzuna, olioia ta hori eta bertzenaz etxeko...
 - Etxeko, etxeko mozkinak ba, ba: etxeko esnia ta etxeko xingarra. Urtean urde bat edo biga seurik, urtiak, hiltzen ziren. Bazinuen xingarra ordüan. Eta oilo zonbait eta ardiak. Ardia orai adin batetan duzularik, ardia're gizentzen duzu, atzarrak deitzen dira ordüan, hek'e etxian baliatzen gintiin.

25. Urdetik urdekirat

- **Erref:** MAK-002/028
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Urdea zuritzeko etortzen ziren laguntzera auzoak. Egiten zituzten puska guziak (odolkiak, lukainkak, andoila…) auzoen artean partekatzen zituzten. Puska hobeak, aldiz, apezari eramaten zizkioten.</p>

Transkripzioa

- Txerri hiltzea, urde hiltzea, erran nahi dut, ze egiten zen, ze, nola, nola prestatzen zen hori?
 - Ba, ba, auzoak jiten ziren normalki, bazen laguntza bat, aitaan laguntzeko ta mutilaan laguntzeko baziren bizpahiru gizon. Eta gero zerri... urde-hiltzalia bazen, hura're auzo bat zen. Eta gu, haurrak, ez giniin biziki maite, e? egoitia: ari zen /aizen/ gure urdia kurrinkaka, eta gero baginiin auzoko gizon bat, urde-hiltzalia. Oino, badakizu zer egiten ziin gizon hark? Hartzen ziin kaniita ta oino zeinatzen zen bere urdia hil aitzin. Gutxi xifritüa gaixo

animalia haan kurrinkaka aditzen, eta harrek oino arta hartzen ziin zeinatzeko! Bon, horiik haurrekiko istorioak dira.

- Eta gero horrekin zer iten zen: xingarra, odolkia...?
- Denak iten ziren gero, alaaianan, badakizu nola iten den: urde, urdia mozten duzu ta partikatzen duzu. Egunian berian iten ziuzten odolgiak. Eta gero lukinkak biharamunian iten ziren. Behar zen utzi lehenik hura gazitzen, lukinka-geiak, ta gero lukinkak biharamunian, ta idortzen uzten ziren, bo! izigarri luzia da istorioa hori...
- Ta xerri puxken izenak eta?
- Xerri puxken izenak, euh, gero auzoekilan trukutzen ziren e, maiz.
- Baina izenak, zer izen zuten xerri puxkek? Oroitzen zira? ... Odolkiak...
- Odolgiak eta lukinkak eta andoila're bazen...
- Patea iten zen?
- Eta gure etxian iten zen ba, patia, ere. Bainen gero andoila hura 're noizpait artio badakit xukatzen aritzen /artzen/ zela... eta gero partikatzen, auzoekilan trukutzen ziren urdiki poxiak. Auzoek emaiten ziuzten, ziuztelarik, jastatzeko, eta gero, bada biziki ona dena, xerrikian, azpixuna deitzen da...
- Azpixuna?
- Azpixuna, ba. E ben, hura maiz emaiten zen apezari.
- Harek puxka hobeak...
- Jendeen idera. Ordüan hola zen, e? Uste dut emaiten zen errientereri're denbora hetan odolgia.
- Ta gero, ze, saiheskia ere iten zen?
- Saiheskia? Bai saiheskiak ere idortzen ziren, orain "ventrècha" deitzen dute hemen jendek. Hori artekia zen hori. Eta gero baziren espaldak eta baziren azpiak.
- Ta zerri-burua ta hori prestatzen zen?
- Hori denak, alabainan, horik denak horik, odolgieta baliatzen ziren batzuk, besteak, xerrien beharriak, hek'e noizpait bestela jaten ziren. Ni ez nintzen biziki okupatzen e, hortaz.

26. Bildotsetik bildoskirat

- **Erref:** MAK-002/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:44:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Aisia » Jai-giroa » San Martin

Laburpena:

<p>Angèle ez zen bildoskiaz arduratzen, ahizpa zaharrenak egituen zuelako. Bildoski odolkiak 'tripotak' deitzen zituzten. Erraten digu ere Biriatuko bestetan prestatzen dituztela oraino tripotak.</p>

Transkripzioa

- Gero bildoskiaren, nola da... hori badakizu? Ikasi zinuen prestatzen?
- Bildoskiaan tripotxak iten? Ez, ez, ni, laugarrena nintzan, ahizpa zaharrenak badazki hobeki nik baino horiik, ez. Tripotxa iten zen ba, denboran... delako ardia gizenduta, atzarrak jaten ziren, eta gero iten zen delako tripotxa hori. Odolgia zen, bainen tripotxa deitzen da.
- Ta "xuri ta beltxak" eta holakoak'e, "xuri ta beltxak"e?
- Ze, ardiak?... eta bildotsak?

- Ez, ez, erraten dut, gure alderdian iten ziuzten, ez dakit zer den e? Bainan bildoskiarekin iten dute “xuri ta beltza”.

- A? Hori ez dakit zer ditakeen. A ba, ba,.Ez, ez ez, gure etxean tripotxak in izan ditugu /izantu/, eta badut entzutia, Béhobie, Biriatur iten dutela, Donamartineko pestetan beti... tripotxa iten da. Oino're jarraikitzen da ohidura hori... toki batzuitan.

27. Katiximarat ostegun guziez

- **Erref:** MAK-002/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:45:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Ostegunetan joaten ziren katiximara. Apeza zen horretaz antolatzen, ez zelako denboran laikorik orain bezala. Haur guziek segitzen zuten kristau bidea. Angèle gogotik joaten zen bai eskolarat, bai katiximarat.</p>

Transkripzioa

- Ta gerora, orduan, hori baserrian zen ta erran duzu eskolarat gaten zineztela, bainan kateximarat'e gaten zinezten, ez?

- Eta ba, denbora hetan ortzegunetan libro zinen ta ortzegunetan joaiten ginen beraz kateximarat. Goiz guziez, lehenik meza eta gero katexima.

- Ta nork ematen zuen, apezak?

- Apeza bakarrik, ba, ba, ez zen laikorik orai bezela, apezak bakarrik, ba.

- Ta denak gaten, haur guziak gaten ziren katiximarat?

- Denak, denak, denak; ez zen nehor egoiten joan gabe.

- Gaizki ikusia zen batto ez bazen joan nahi?

- Ez dakit, nehor bazenetz joaiten ez zenik. Ordüan, ohidura zen: eskola bazen, katexima bazen, igandia bazen. Denak segitzen zintin berdin-berdina.

- Ta zer nahiago ziniin, katexima edo eskola?

- Ez niz oroit, ni gogotik joaiten nintzan bietarat ere. Eta oino oroitzen niz, memento batez... urrian: urria erraiten da arrosorioaren hilabetea. E bien, eskolaat joan aitzin, arrosorioaan iten, oroitzen niz erabilirik meza aintzinian edo meza ondoa zen... ez, meza ondoa zen, seguraz'e.

28. Besta Berri

- **Erref:** MAK-002/031
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:45:59. **Bukatu:** 00:49:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Urte hastapenetik elkartzen ziren Luhusoko gazteak, Besta Berria muntatzeko. Armadako pertsonaiak ziren biltzen desfilean: kapitainak, sarjentuak, zanpurak, etab. Etxeak ere apaintzen zituzten horren kari.</p>

Transkripzioa

- Gero baziren Besta Berri ta holako bestak iten ziren?
- Bistan da Pesta Berri bazela! Hori urtiaan hastapeneko biltzarria zuten mutiko gaztek. Gero herriko pestak muntatzen ziuzten, baina jada elgarretaratüak ziren pestaberrien muntatzeko.
- Ta nola izaten zen hori, Besta Berri?
- Ni neska nintzan, baina badakit biziki herriko titulüak baziuzten. Baziren, ba, kapitaina, ta bazen sarjanta ta, bazen ofizierak eta bazen... hori militar gisa muntatüa zen hori. Arrunt armadako moldian ina zen.
- Ta gero horiek nola beztituak ziren?
- Horiik, erraiten dute Napoleon denborako beztimendak hartu dituztela / tuztela/, itxurak.
- Eta gero non hasten zen: mezan? eta gero prozesioea? edo nola egiten zen?
- Lehenik beztituak ziren, beraz, horiik, elgar behar ziuzten hautatu, zoin izanen zen buruzagi ta zoin hau, zoin hura, eta dantzari onak behar ziren, zanzurrek behar baitute dantzan sartu elizan. Ezagutu duzu hori zuk pixka bat?
- Ez, gurean ez zuten...
- Ez, ez duzu hori? Bon. Eta, horiik lehenik beztitüak joaiten ziren apezan etxerat, apezan xeka. Eta gero jiten ziren musikarekilan eta soldado guziak eta beztitzen eta eliza-sartzia egiten zen emeki-emeki. Eta eliza-sartze hori, behar da jakin, lehenik baduzu, orai oilarrak badira biga, eta gero sei, lau zapur. Hoik seiak sartzen dira musika aire horrekilan, eta musika berezi bat duzu. Elizan sartzen ta aldare aintzinean plantatzen dira batzu eta soldaduak, berriz, eliza erdian, xutik. Eta prozesioia iten den mementoan, meza bukatzian Pesta Berri egunaz, igande goizarekilan egiten da prozesioia. Egiten zen. Eta oino're iten da asko herrian.
- Ta apeza, nola erraten zaio... apeza zerbaiten azpian...
- Pabilluna deitzen zen horri. Ba, ba.
- Eta delako hostia ematen den toki hori...
- Iguzki Saindüa.
- Eguzki Saindua eskuaraz.
- Bai, bai, Iguzki Saindüa, Jesus erabiltzen zen kanpoan. Ez dakit zoin aita sainduk deliberatu zuen urtian aldi bat behar zela ta, iguzki saindua, hori, kanpoan erabili. Hara.
- Eta gero, orduan elizatik ateratzen ziren eta norat gaten ziren?
- Prozesioian? Ba, ba, hori biziki ontsa xuxendüa zen ba. Baziren...
- Herriko plazara gaten ziren?
- Ez zen bakarrik herriko plaza; baziren bi toki, nun erabiltzen bitzen: lehenik, eta, eskuneko aldi Itsasuko hortat joaiten zen batto Luhuson, han bazen Mademoiselle Fagalde deitzen zen bat, haren etxondoan bazin aldare bat. Han pausatzen zen eta han'e egiten zen zeremonia. Ta berriz gibelatekoan, Luhusoko plazan, bazen berriz'e han ere eta, pausaleküa. Han ere aldaria iten zuten.
- Ongi apainduak eta...
- Bai, eta haur ttipiek, neska ttipiek guziz, behar ziuzten arrosak bildu ta arrosak botatzen ziren iguzki saindüari buruz, memento batez. Hori Pesta Berri egunian. Eta Oktabaz, gauza bera errepikatzen zen, baina ordüan bertze toki batetan zen iguzki saindüaren pausaleküa.
- Ta etxeak-eta apaintzen zituzten?
- Luhuson ez zen halaxet apaintzen etxerik, banan ikusi izan ditut /tut/ orai izan bainiz hartako doina eta, mihixiak eta, ezartzen dituztela /tuztela/ edo oihal pollitak berinetarik, leihoetarik dilindan, eta gero argi batzüikilan eta

edo ama birjina bat edo kurutzefika bat ezartzen dituzte /tuzte/ leiho ixkinetan, prozesionea pastu behar den leküan.

29. Debozioa eta adiskidetasuna

- **Erref:** MAK-002/032
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:49:57. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Eliza besta Andra Mariatz egiten zuten. Ogi azaoak erabiltzen zituzten zeremonia berezi horretan. Besta horietarat gogotik joaten zen Angèle, debozioaz gain, lagunak ikusteko parada zelako ere.</p>

Transkripzioa

- Holako eliza-bestarik izaten zen gero herrian?
- Eliza-pestak gero... Andramariatz egiten zen, Andramariatz'e erabiltzen ginen prozesionean eta gu, alaietan, kantariak, mantalina xuriekilan erabiltzen giniin, prozesione hartan. Eta pestaberrietan'e dudarik gabe ere /duaikabere/. Ez niz orroitz pestaberrietan mantalin xuriak baginiinetz, bainan Andramariatz badakit orroitzen ginela... Ordüan, ogia, ogi eta azau batzu erabiltzen giniin, oui, orai nola da horiin xuxena? horiin burutzia zer ote da? ez niz orroitz zendako erabiltzen ginen ogi-azaukila. Andramaria egunarekila prozesionea egiten zen. Bainan ez zen ordüan pausalekürik izaiten. Jalitzen ginen elizetik, plaza itzulia egiten giniin eta berriz sartzen. Ogi-azau heen signifikazionia ez dakit zer zen. Gero hostiaan iteko irina baliatzen zenez, azau horien ondotik, zerbait erranahi bazen seur-seurra istorio hortan!
- Eta gogotik gaten zinezten hola besta horietara ta?
- Bo, bistan da! Guretzat hori, elgarretaratzen ginen ere; ez zen, ez zen beste jalitzeko molderik! A ba, ordüan ...
- Ta mezarat'e igandero gogotik gaten ...
- Bistan da, bistan da, ba, ba, ba. Gogotik joaiten ginen eta gero lagunak ere ikusten ginintzin mementoa're hori zen. Bazan bi gauza hor: debozionia bazen, banan bazen ere adiskidetasuna. Orduan berritzen ziniin.

30. Auzoak zenduarengat otoiñera eta beilatza

- **Erref:** MAK-002/033
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Ehorzketetan, emaztekiek arropa luzea jartzen zuten; gizonak, aldiz, marratxo beltz bat lepoan, dolutan zirela erakusteko. Norbait hiltzen zelarik, auzoek familiari laguntza ekartzen zioten, hilkutxa lurperatu arte.</p>

Transkripzioa

- Gero, nola pasten zen hola, elizkizun bereziak eta enterramenduak, eta ezkontzak, eta...
- Enterramenduak, enterramendüak ordüan denbora hetan, emaztekiak behar gintün bere gisako eta arropa luze beltz batzu, mantaleta deitzen zen; eta gizonak bazuten, berriz, beste gauza bat, bizkarrian ezartzen zutena, eta gu dolüan erabiltzen ginen berriz enterramendutik lekora, batzüitan bi urtetaraino beltzez beiti emaztekiak. Eta gizonak, hemen ezartzen zuten papoan, marra bat, beltza, josia...
- Hori dolua, dolua?
- Doluan zinela marka zen hori. Bazinakin familian harrek norbait baziila galdua. Eta gero ehorzketa-egunian, auzoa, auzoak baziin biziki inportantzia handia, kurutziaa xeka joaiten zen lehenik hil eta, auzoa, elizarat; eta elizatik ekartzen zen kurutze hura. Eta denbora hartan, eliza-soinüa joiten ziren eta jendeak bazakiten soinu hartarik, ea emaztia zen hila, ala gizona hila zen.
- Bi desberdin?
- Bi desberdin ziren. Ez dakit hiru danga zirenetz gizonarentzat eta gelditzen, berriz hiru danga eta gelditzen, eta bi danga emaztekiarentzat eta gelditzen. Hori xuxen ez dautzut erranen. Eta auzoak, auzoak gero, gero ere elizan, familiaan ondoan zen eta ehorzketako mementoan joan behar zelarik kutxarekilañ'e, beti auzoa han zen, bere xirioarekilañ, laguntzen, familia laguntzen. Eta ondoko egunetan ere erabiltzen ginen elizan, baina enterramendu egunian, denbora hetan ez bitzen autorik orai bezela, jiten ziren oinez edo zaldiz... batzu. Beti egiten zen apairu bat handia, e?
- Eta auzokoak abisatzen ziren lehenbizik?
- Auzoak abisatzen ziren eta auzoa erabiltzen zen ere familiaan abertitzen.
- A, auzokoa ibiltzen zen?
- Ba, ba, ba, ba. Eman dezagun guria lholdin erabiliko zen, Irisarrin, denbora hetan, familia han baikiniin, hura erabiltzen zen, abertitzen.
- Eta apezaren, berak abisatzen zuen?
- Apezen auzoak abertitzen ziin ba, ez zen telefonarik, ordüan behar ziniin joan etxerat.
- Eta bertze zerbait iten zuten hola auzoak, egun hortan laguntzeko edo?
- Beilatz giniin hila, bi egunez seurik... egunaz ez dut uste, baina gauaz beti han egoiten zen jendia, bat edo biga, seurik.
- Ta otoitzian egoiten ziren?
- Otoitzian edo eleketa're aritzen /artzen/ zen eta zerbait beoon edaten'e. Ni orroitzen niz ahizparekilañ egonik auzo baten eta, beilatz.

31. Auzoenganat hiltzeak zabaltzera

- **Erref:** MAK-002/034
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:54:43. **Bukatu:** 00:56:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Baionara heldu zelarik, joaten zen auzoenganat Angèle zendu ziren pertsonen izenak zabaltzera.</p>

Transkripzioa

- Eta auzoen abertitzeko istorio hori, ni Baionaat jinez geroz, diila hirutanhoi urteko istorioa kondatuko dautzut. Ez zen ordüan egunkarietan egiten. Nik ene auzoa hil zelarik, nik behar niin joan auzoko jenderi erraiteat hola: "hila da Madame Ducassou eta holako tenorian da enterramendüa". Cordeliers karrikako ate guzietan bazen mailuka, badakizu zer den hori? Atetan joiteko. Joiten ziniin bizpahiru edo lau kolpe, eta jendia leihorat jalitzen ziren. Eta ordüan erraiten zinuten "to, holako presuna hila da eta hola..." Nik ezautu dut Baionan ere istorio hori, auzoen lan hori.
- Ta hemen'e bazen hori, gurutzea eramatia ta?
- Ez, ez, Baionan ez zen ohidura hori, ez dut egundano ikusi. Ez, ez, ez. Aise sinpleago ziren.
- Hori ez zen errefusatzen, ez?
- Normalki sekula ez du auzoak errefusatzen. Samur baldin bazira're, memento hoitan uste dut, estaltzen diren. Arrado da.
- Ta hoik badute izena? Auzoei ematen zaiote izen bat, berezi bat?
- Ez dut uste auzoen, auzoa... Gero, apairua finitzian egiten duzu otoitz bat, eta hura're normalki auzoan kondu da.
- Orduan dena, familien sufrimendua eta hola zera egiteko, auzoak egiten du?
- Auzoak egiten du denen elgarretaratzia eta denen sustengatzia, eta han da, auzoak badu lan bat inportanta.
- Eta enterramenduetan-eta badire edo lehenago baziren kantu, hola, bereziak?
- Ez zazula hori aipa! Badira bistan da kantu bereziak, ba, enterramendüetako, ba, ba.

32. Euskara haurrei transmititu

- **Erref:** MAK-002/036
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:56:46. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Denboran jendea ahalketzen baldin bazen, Angèlek euskara bi haurrei transmititu die. Bere alaba txikitan hizkuntzarengandik urrundu ondotik, lizeoan zuen berreskuratu ahal izan, gaztelera irakasle batek bultzaturik.</p>

Transkripzioa

- Haurrei eskuaraz erakutsi diozute?
- Nik haurreri eskuaraz, ba.
- Alta, jende aunitz ahalketzen zen, ez? Momentu batian eskuara edo...
- Ni, ni ez, bainan ene haurrak, ene alabak, erran izan daut: "O, ama, zutarik urrun egoiten nintzan, zu hasten zinelarik lagun batzüikilan eleketa eskuaraz". Zeen ta ttipian, eskolan abiatu delarik, ez zakin eskuara bizik. Ez dut uste memento hartan senditu diin diferentzia. Gero, handitu delarik, ikusten ziin gehienak ari zirela, denak, frantsesez, eta gure ama eskuaraz ari bestekilan. Ez zen kontent. Urruntzen omen zen nitarik, ez entzuteko.

Hori erran izan daut alabak.

- Orai...

- Eta gero, eta gero, lizian zelarik, han atxeman ditu lagunak, eta, bazuten espainolaan eta, erakasle bat, biziki abertzalia dudaik gabe, ez dakit nolaz, eta lagunak ukan ditu, eta berriz lotu da eskuarari. Eta memento batez, nik ez banion emaiten eta, behar zen bezela errepostüa, "Ama! Nola nahi duzu nik berriz ikas dezaatan eskuara, ez balinbadautazu eskuaraz emaiten errepostüa!". Harek iratzarrazten nindiin, behar nindiin, berriz. Harek eskuratu du berriz eskuara, bainan izigarri ontsa, eta mutikoak gauza bera, berdin.

33. San Andres elizan euskarazko mezak

- **Erref:** MAK-002/037
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 01:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Baionara heldu zirelarik, Baiona Ttipiko San Andres elizako mezan dena frantsesez zen. Soulebet apez iritsi zelarik, aldiz, euskarak bere tokia lortu ahal izan zuen. Oraingo apez erdaldunak segitzen du ohitura hori.</p>

Transkripzioa

- Ta, zure ustez, zetako hola galdu da eskuara?

- Nik ez baitakit zer gisaz galdu den hainbestetaanoko eskuara, ez dakit bate. Meza, berdin da, Baiona Saint André-n, dena frantsesezzen horrat arribatu nizalarik, eta gero... arribatu zen apez bat, Soubelet. Harrek muntatu ziin hamarrak eta erdietan igande guzietz meza eskuaraz. Ene senar zena kontent zen. Eta apez hura ez baitzen arras trebe... alta misionest izana zen, bainan ez zen arras trebe, ekarrazten zituen peediküaan egiteko apez eskualdunak. Bazen ordüan omonier zena San Bernard eta, kolejio hortan, Epherre kalonje bat, hura ekarrazten zuen. Gero ekarrazi zuen Hiriart Urruty hazpandar eta bikario jeneral egon zena. Harrek'e emaiten zuen peredikua eskuaraz, bainan meza're, bistan da, eta ondar denboretan berriz baginiin ospitaleko omonier zena, e... Etcheverry. Urruñan'e egona zen apez. Hura jiten zen. Beti ukan dugu geroztik beti eskuarazko meza, bainan, Baionaatuta frantsesez ziren denak, egia da.

- Orduan berrikitan, lehenago ez zen, dena frantsesez?

- Dena frantsesez. Apezak egin zuen eskuarazko meza eta atxikitzen dugu orainokoan. Oinokoan atxikitzen dugu, bainan ez da apez gazterik eskualdunik, e? Ez dugu, ez dugu apez gazterik eskualdunik. Martinon bada batto, Donibane Garazin dena... beste bat'e bada Maulen dena, Haristoy; gero, bistan da, bada Bokalen'e hemen Ttotte Hardouin, hura're eskualduna da eta, banan, segidako San Andresen, ez dugu. Kalonje adinetako batzu jiten dira mezaan emaiterat eta horgo apezak'e ikasi du pixka bat mezaan emaiten. Ez daki eskuara, bainan mezaan emaiten badaki.

34. Gazteria Elizatik urrundua

- **Erref:** MAK-002/038
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:00:23. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizaren balioa galdua dela dio Angerelek, gaurko gazteek ez dutelako gehiago inportantzia bera ikusten. Baserrietan ere ohitura joana dela pentsatzen du.

Transkripzioa

- Gazterik eta, gutti gaten da?
- Ez, elizatik urrundua da gazteria, arrunt. Elizatik, gazteria ta adin batetakoak ere. Ez, ez, ohidura hori, urrundua da, eliza ez da baitezpada gauza inportanta, joana da arrunt elizaan, euh, nola erranen /erran/ dut, balio hura, galdia da. Biziki jende guti da. Aipatzen zaunkuten ooino eguerrietako jendea nola bilduko den, eta oino norbaitek erran du Landibarreko istorioa kondatzen zuten. Ez, ez, igande soiletako meza, jende bera izanen dela, ez dela gehiagorik izanen. Baserrietan'e joana da.
- Ados.

35. Euskal Herriaren amodioa atxiki dute hurrek

- **Erref:** MAK-002/040
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:01:49. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hurrekin biziki pozik dela dio, bereziki aitonen hizkuntza atxiki dutelako. Oroitzen du bere alaba, euskara utzi ondoan, berriz lotu zela euskarari. Haur txikiek ere euskara ematen dute.

Transkripzioa

- Ene bizia hola, ene hurrekila biziki kontent niz eta bere Eskual Herriaan amodioa atxiki bitute eta bere haurreri erakutsi bitute, bere aitonen-eta hizkuntza, biziki kontent niz.
- Batto erran duzu, Gasteizen...
- Gasteizen da, bai, bai.
- Eskuararik?
- Ba, ba, eskuara, bistan da, eskuara. Unibertsitatean erakasle izana da eskuaraz, ba, ba, ba. Erraiten dautzut, utzi izan ondoan lotu zen hura're eskuarari eta, eskuaraan balioa eta eskuaraan amodioa, eta hiru haur baditu eta hiru alabak, gauza bera, e?

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com